

# NAK FESTIVAL

## 2022 DEIALDIA

Nafarroako musika Garaikidearen jaialdiaren zortzigarren edizioak, NAK jaialdiak, 2022. urteko deialdia irekiko du proposamen berriak hautatzeko.

Aurtengo edizioan bi modalitate desberdin ezarri dira:

A modalitatea

Solista edo talde instrumentalei zuzendua.

B modalitatea

Jaialdiarekin lankidetzak-sareak ezarri nahi dituzten erakunde musikal eta artistikoei zuzendua.

### OINARRI OROKORRAK

- Interesdunek modalitate bakarrean izena eman dezakete.

-Aurtengo gaiaren haria MITOTIK ARRAZOIAREN EZAGUTZARA izango da bi modalitateetan.

Jaialdiaren antolakuntzak gai hori proposatzen duten eta programan koherentziaz garatuta dauden proiektu desberdinak aztertuko ditu.

- Parte hartu nahi duenak bere proiektua bidali dezake eskaera orriaren bidez, azaroaren 1etik 30era (biak barne).

-Bidalitako proiektuan doser bat erantsi beharko da txosten baten moduan, honako ezaugarri hauek bilduko dituena: proposamenaren deskribapena, programa, fitxa artistiko zein tekniko, baldintza ekonomikoak eta beharrezkoa izatekotan ikus-entzunezko edukietarako loturak.

Youtube, Vimeo eta antzeko difusio-kanaletarako loturak onartuko dira.

Ez dira onartuko iraungita data daukaten deskarga loturak.

Artxiboek ezin dute 20 MB baino gehiago izan.

- Deialdiaren ebazpena 2022ko urtarrilean jakinaraziko zaie hautatutako artistei.

-Jaialdiaren antolakuntza harremanetan jarriko da hautatutako artistekin eskaera orrian zehaztutako helbide elektronikoaren bidez.

Parte hartzeak oinarri hauek onartzea dakar.

Deialdi honi buruzko kontsultak egiteko, idatzi helbide honetara: [info@nakfestival.com](mailto:info@nakfestival.com)